



EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

## ALTZAKO KIROLDEGIAREN INGURUKO MOZIOA

Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako MOZIO hau aurkezten du, Altzako kiroldegia dela-eta, Udalbatzaren osoko bilkuran azter dadin. Mozio hau Gune Publikoetako Batzordean otsailaren 5ean egindako interpelazioaren ondorio da.

### JUSTIFIKAZIOA

Udal Gobernu Batzordeak, 2014ko martxoaren 14an “Altzako kiroldegia eraberritzeko eraiketaren oinarrizko proiektua eta exekuzio proiektua” egiteko ideia lehiaketa baten oinarriak onartu zituen.

Hauxe zehaztu zen, besteak beste:

-Oinarrizko proiektua egiteko gehienezko epea: 3 hilabete.

-Exekuzio proiektua egiteko gehienezko epea: 4 hilabete, oinarrizko proiektua onartzen zenetik edo orduan ezartzen zen datatik zenbatzen hasita.

Udal Gobernu Batzordeak, 2015ko urtarrilaren 9an, ondorengoa erabaki zuen: Altzako kiroldegia eraberritzeko eraiketaren oinarrizko proiektua Chocarro, Herranz, Tabuenca eta Leachek osatzen duten UTEari esleitzea. Kontratuaren esleipena 2015ko urtarrilaren 14an jakinarazi zen eta UTEak 2015ko otsailaren 6ko idatziz epea etetea eskatu zuen, partaidetza prozesua abian zela-eta. Hori dela eta, Gobernu Batzordeak epea maiatzaren 4ra arte luzatu zien. Partaidetza prozesuan waterpolo eta gimnasia erritmikoa praktikatzeko beharrezkoak diren ezaugarriak onartu ziren.

Irailaren 9an, Udal Gobernuak “Altzako kiroldegiaren oinarrizko proiektua” onartu zuen, hainbat departamenduren txostenak jaso eta gero, baina exekuzio proiektuaren esleipena azaroaren 3ra arte atzeratu zen, nahiz eta UTE bera izan. Gogoratu behar da, aurreko gobernuaren programaren arabera, abendurako exekuzio proiektuak aurkeztua behar zuela; hori, noski, ez da bete, eta beraz, obraren esleipena atzeratu egin da.

Uztailean gai honi buruz interpelazio bat aurkeztu genuen, ikusita epeak betetzea gero eta zailagoa izango zela. Gobernua garai hartan baikor agertu zen.

Otsaileko batzordean, zinegotzi ordezkariak atzerapenak onartu zituen eta epeak betetzeko ere larri ibiliko zirela aitortu zuen. Geroztik, hilabete honetan, ez da aurrerapausorik eman, eta proiektua ez

da onartu ere egin. Hori dela eta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du.

## **MOZIOA**

1- Donostiako Udaltzako Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio Altzako kiroldegia berritzeko egitasmoa lehentasun osoz har dezan, Altzak, altzatarrek eta erabiltzaileek lehenbailehen merezi duten ekipamendua izan dezaten.

Donostian 2016eko martxoaren 17an

JFK/  
C/E/  
P2007/  
400A/  
TEER/  
E/  
01200  
687  
10655  
E/  
2011-  
06

Josu Mirena Ruiz Martin  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia

JFK/  
C/E/  
P2007/  
400A/  
TEER/  
E/  
01200  
687  
10655  
E/  
2011-  
06